



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-09-28


VIURTEA 1.520.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Egungo egoera gordinenetakoa dela dio ezker abertzaleak


TOLOSALDEA Atzoko Gudari Egunean ekitaldi ugari egin zituzten hainbat herritan 6



Goian, Iruran ikusgai izan zen kale-antzerki saioa. Behean, Aldaban suziria jaurti zuten unea. A. IMAZ

IRURAN ETA ALDABAN JAI GIROAN ERABAT MURGILDURIK

JAIK Atzo ekin zieten jaiari Aldaban, eta bihar amaituko dituzte; Iruran, berriz, pasa den astetik festa giroa da nagusi herritarrengan 7



Gustura aritu ziren margotzen neska-mutilak. A. IMAZ

Ederki margotzen dakitela erakutsi dute gaztetxoek

BIDEGOIAN Kultur Astearen baitan, marrazki lehiaketa antolatu zuen atzo Guraso Elkarteak 6

Pilota Festa handia Behar-Zana Pilota Eskolakoen eskutik

AMASA Goizean goizetik partida ugari izan ziren maila desberdinetan 6

Egun osoan festa giroaz gozatu dute Bizi-Nahi elkarteko kideek

IBARRA Gaur amaituko dira jubilatuen jaiak, azken suziriarekin batera 6

Letez eta Pavesez, Iraizez



» Uzturretik

Patziku Perurena

Lagun batek honela idazten zidan lehengoan:

«Aurreko egunetan Xabier Leteren *Abestizak eta poema kantatuak* liburua irakurri diat. Xabier hau berezi samarra iduritu zaidak beti, eta aspalditik miresten diat. Pentsamoldea ez ezik, berori adierazteko darabilen hizkuntza ere berezia iduritzen zaidak. Idazkera argi eta beregaina zerabilek, gutxik dezaketen bezalakoa. Hara liburu horretan han-hemendik jaso ditudan gustuko pasarte batzuk».

«Gutxi esplikatu izan ditugu ar-

gudio orokor guzien azpian bakoitzaren baitan zeuden arrazoi eta mugiarazle pertsonalak. Ikuspegi sozial guziez gainera, beti behar dira, jendea zerbaitegitera jarri dadin, norberaren motore eragileak.

Deitu ilusioa, deitu banitatea, deitu norberarekiko exijentzia, deitu betebeharen kontzientzia, deitu neurosia, deitu sena artistikoa; deitu, zergatik ez, gizatasuna ere. Nehor ez litzateke oholatza gainera igoko barruko zerbaitek bultzatuko ez balu. Jendeak uste izaten du oholatza gainetik ari zaionak bada dela esateko zerbaite, eta esateko hori ahalik eta dotoreen adierazi behar duela. Hori izan zen, ziurrenik, neri gertatua ere».

Hori aurrenekoa, eta ondotik beste mordoia. Nik ere gauza bera pentsatu izandu dut Letez, bere mugiarazle pertsonalak jeneralduki kontatu izan dizkigula, eta behar bada, horretan galdu dugula bere poesiari ederrera, konkretuena. Hala ere, badut nik susmoa

edo esperantza, intimitate konkretu horretatik zerbaite are hunkigarriago utziko ote digun, gauzak adierazteko duen ohizko dotoretasun hori gabe, zarpailtxeago bada ere.

Ni ere hunkitu ninduen gogotik Leteren liburu honek, joan den Eguberrietan, eguraldia lagun, leitu nuenean. Eta baita orain berriro Pavesez ari dela esan duenak ere hunkitu nau:

«Behar bada, bizitzaren zentzuaren funtsa horretan legoke, egiten dugunarekiko adostasunean, eta hor hutsunea nabaritzen dugunean, ez txalok, ez ohoreak ezin gintzakete gure izate gozaketetik salbatu».

«Baina betirako ezabatua izan denaren harmonia ezina antzietzen duenarentzat ez legoke kontsolamendurik, ez hitzetan ez beste zertan. Eta zer litzateke ezabatua izan den hori? Oso urruneko paisaia bat, zentzuak emaltzearen emozio harriduraz eta minez josia,

desioaren exaltazioa, lehen karizien xamurtasuna eta dorpetasuna... Eta nire buruari esaten diot, behin eta berriz, Pavasek bere burua bota zuela ez kulpagatik, nos-talgiagatik baizik».

Baina bizitza, berarekin ezin konpondu bategatik utzi behar al da preziso? Ezin al dio gizon ondradu eta apalak bizitzari goxo goxo adio esan bere maitasun eta argitasun osoan, bere bizi osoari eman dion zentzu bete biribilduz? Ezin dut imajina hori baino koherentzia ederragorik. Nik behintzat horrelaxe ikusi izan dut beti nere bizitza xelege haur, neurri juezik sintzeroena bihotzean daramadan heriotz hauxe bera dudala. Eta etorriko da, eta argitasun osoan ospatuko dut, ez muzin eta ez lurmin, eta bestela gertatzen bada ez da nire heriotza izanen.

Cesare Pavese esaten du ederki: «Zergatik ez du gizonak zerbaite adierazten duen heriotza duin bat aukeratzen? Bere burua hiltzen utzi gabe. Zergatik?». Bai ederra galdera! Jainko eta paradisu guziez honatago, ezin baitut gizatasun beteagorik beste inolaino imajina-

tu. Izanez ere, bere bizitzaren zentzua bere heriotzaren zentzuarekin biribiltzen ez dakienak, zer gizatxasun izan lezake?

Beste galdera hau ere egin liteke, berak hain gutziko duen Pavese-ren aurrean ipiniz Lete: «hildako bere lagunik maitenarekin aurkituko dela zinez sinesten duenak, nola segi lezake oinazez mundu honetan?».

Eta ez da galdera krudela, inozentzia hutsez eta errukiz egina baizik. Koherentziarik intimoenari bere zentzurik naturalena ematea heroikeria arrotzat jotzen baitu normalean ardirjendeak. Letek berak gogoratzen duen bezala, zer segi behar dugu Unamunok esandakoan: «morir es la costumbre» eta kitto, nork bere heriotza estamentu santuren baten monopolio-tzat uzten? A ze gradua gizatxasunari, bere bizia hola saltzen duenak!... Eta zenbat aldiz xaharren ahotik: «ni noiznahi hiltzeko prest naukazu». Eta zer gauza ximplea eta ederra nork bere heriotza onartzea. Nork bere mugak eta atsegina onartzea besterik ez baita funtsean.

A Argazki zaharra



Zezen-plaza kirol apustuen lekuko fina

TOLOSA • Mendeko apustu bezala izendatu dutena izango da gaur ikusgai Tolosako zezen-plazan, 12:00etatik aurrera, Izeta II.a eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileen artean. 137,5eko harri kubikoarekin ariko dira, 10 minutuko 3 txandatan, eta 20.000 euro jarri ditu jokoan bakoitzak. Ikusmin handia sortu duen apustua da, baina gaur egun horrelako gutxiago egiten badituzte ere, lehen ohikoagoak ziren gureak apustuak. Eta Tolosako zezen-plaza leku aproposa izaten zen horretarako. Irudian dugu garai bateko apustuen adibide bat. 1936. urteko apirilaren 13an izan zen idi apustua da ikus dezakeguna, eta idiekin dagoena, Apatamonasterioko Pedro Juan da. Garai haietan ere ikusmin handia sortzen zuten, noski, horrelako apustuek. Ikusi besterik ez dago argazkiaren atzealdean zezen-plazaren harmailetan ikusten den jendetza. «JESUS EL OSEGI 1907-1979»

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra



BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala
Tolosa (Bellatokia)

Txirrinduen erabilera gorantz

» Iritzia

Tolosako Ingurumen Zentroa

Tolosarrok Nire autorik gabeko egunerako hartu beharreko konpromisoari ez diogu eutsi. Irailak 22an egindako neurketen arabera auto pribatuak ez ditugu baztertu mugikortasun eramangarriagoaren apustuaren alde. Egun horretan ikastetxeen inplikazioa altua izan arren gainontzeko herri-arrangean ez da nabarmendu egun horretan autoa baztertzearen konpromisoa. Iaz hartutako datuen arabera, orokorrean ibilgailuen mugimendua eta kopurua bere baitan mantentzen dira eta aurkitu diren gora beherak, herrian ematen ari diren obrenatik izan daitezke, sarbideak eta irteerak aldatu baitira. Datu pozgarriena hau da: bizikleten erabilpena, pixkanaka bada ere, igotzen ari da.

Aire garbia denontzat lelopean hilaren 22tik gaur arte Mugikortasun Iraunkorren Astea ospatu dugu Tolosan, guk ere atmosferara botatzen ditugun CO2 gasaren isurketa gutxitu nahi dugula konpromisoa hartu nahian.

Astelehenean, hilaren 22an, *Nire autorik gabeko hiria!* egunean bigarren urtez, Tolosako trafikoa neurtu zen goizean zehar, Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleekin, denera 65 lagunek parte hartu zutelarik.

Datuak hartzerakoan, ondorengo ezaugarri hauek kontuan hartu dira: Ibilgailu kopurua eta norabidea; Alde Zaharreko sarrera; Bigarren lerroan aparkatzen duten ibilgailuak; Bidegorriaren erabilera eta zama-lanekoguneetan aparkatzen dituzten ibilgailuak. Aurten

aurreneko aldiz, ikastetxeetara zein Usabalgo industrigunera dohazten ibilgailuen kopuruak jaso dira.

Datuak goizean goizetik biltzen hasi ziren DBHko 4. mailako ikasleak Tolosako Ingurumen Zentroko hezitzaileen gidaritzapean, 07:45etik 13:30era, hain zuzen. Denbora tarte horretan, Tolosako sarbideetan (Zubi Berria, Arabako etorbideko biribilgunea, Arrameleko zubia, suhiltzaileen biribilgunea) 10.546 ibilgailu sartu ziren; iaz, berriz, 10.780 sartu ziren.

Trafiko honen guztiaren ia erdia (%41,71) Zubi Berriko biribilgunean ematen da, eta Arrameleko zubian berriz, Tolosara sartu zen trafikokoaren herena (%27,97) motor-dun jaso zuen. Pasa den urtean, Zubi Berriko biribilgunean %44a zenbatu zen, eta Arrameleko zubian, %29,38. Bi hauek dira Tolosako sarbide nagusiak, 7.349 ibilgailu pasa baitziren bertatik. Iazko datuei erreparatuta, 7.900 ibilgailu igaro ziren.

Trafikoa ez da gutxitu

2007an ere, beraz, hauek azaltzen ziren sarbide nagusienak, baina aurtengo kopuruak zertxobait beheraka egin badute, Araba Etorbidean eta Suhiltzaileengandik da goen trafikoko kopurua berriz handitu da: 1.928 eta 1.269 zenbatu dira bi puntu horietan, hurrenez hurren, eta iaz, 1.903 eta 937. Trafikorearen %18,28 eta %12,03 suposatzen du horrek. Iaz, bi puntu horietan bildutako datuen arabera, trafikoko osoaren %17,65a eta %8,69a izan zen.

Datuak kontuan hartuta ondorengo irakurketa egiten dugu: Tolosan zehar mugitzen den motor-dun trafikokoaren kopurua ez da gutxitu, trafikoa iaz baino motelago

doa obrak direla eta, aldi berean hauen eragina, herrira sartzeko erabiltzen diren puntuak aldatu egin dira zertxobait. Araba etorbideko zein suhiltzaileen sarrerak gehiago erabiltzen direlarik.

Halaber, Alde Zaharrean sartzeko ibilgailuen kopurua bi orduko bi tartetan neurtu zen: lehenengoa 08:00etatik 10:00etara eta bigarrena 10:00etatik 12:00etara. Denera, 272 ibilgailu sartu ziren goizean zehar. Iaz egindako neur-

naren parean %27,74 eta Zezen Plazan %26,28.

Iaz beste hiru puntuetan zenbatu ziren bigarren lerroan utzitako ibilgailuak, Rondilla, Shanti Kiroalak dendaren inguruan (%5,11) eta San Frantsisko (%8,76), hain zuzen ere. Tarte hauetan oso datu baxuak jaso dira iazkoen aldean, kontuan izan behar da ur zikinak jasoko dituen kolektorearen obra dagoela.

Zama lanerako guneetan aparkatzen duten ibilgailuen kopurua, 164koa (iaz, 252) izan da egun honetan, goizeko 09:00etatik 12:00etara lau puntu hauetan: Rondilla

101 bizikleta zenbatu ziren, eta ordu tarte horietan izandako portzentaia %60 eta %40 izan zen hurrenez hurren. Iazko datuen konparaketan igoera antzematen da, beraz.

Azkenik, azpimarra daitezke aurten egindako neurketa berriak ikastetxeetara zein Usabalgo Industrialera sartzeko autoen kopurua. Ibilgailu hauek guztiak oztopo galantagun suposatzen dute aipatutako lekuotan eta gure ustean arazoa guztiz baztergarria izan zitekeen. Ez dugu lerro hauetan hartutako datu guztien berri eman baina merezi du hauxe aipatzea: goizeko lehen ordutan (07:45etik 09:30era) ikastetxeak kokatuta dauden hiruzonalde nagusi bakoitzera batez beste 60 auto iristen dira. Eskolako Agenda 21eko foran gai honi buruz lan egiteko konpromisoa hartu da ikasturte honetan (08/09). Proiektuan berreskuratu nahi da haurrak eskolara joan ahal izatea eta horretarako eskolako komunitatearekin (gurasoak barne) lan sakona egiteko asmoa dugu oinezkoen geldidunak ezartzeko.

Usabalgo industrialdean honako datuak jaso dira: 206 auto, 22 kamioi, 34 furgoneta eta 2 motor. Goizosoan industrialdean 527 ibilgailu aparkatuak zenbatu ziren. Beharbada, lanera joateko garraio publikoa egotea ez da nahikoa etxeko autoa baztertzeko (dagoneko Usabalgo industrialdera doan zerbitzua goizeko 07:30etik ordu erdira dago). Gai honetan tolosarrok garraio publikoaren erronkari eutsi behako genioke mugikortasuna eramangarriaren mesederako.

Gainera, amaitzeko, ba al zenekien minutu bakoitzeko 24,5 ibilgailu elkartzen direla Zubi Berriko biribilgunean. Eta, Arabako etorbidean berriz 10,7? Eta, Alde Zaharrean, goizean 75 ibilgailu sartzeko direla orduro?



keta berean, 303 zenbatu ziren. Orokorrean, sartzeko ibilgailuen gehiengo banaketa lanetarako dira, eta ondoren erostekak egiteko doanek, bizilagunak, gajeetara doanek, gestioak egiteko eta gremioetako lanetarako izan dira.

Bigarren lerroan aparkatzearen oihutara txarra ere kontuan hartu da. Herriko 5 puntu arazotsuenean neurtu da joera hau, eta denera 137 ibilgailu kontatu dira, goizeko bi orduko tartetotan: 09:00etatik 10:30etara eta 10:30etik 12:00etara. 181 zenbatu ziren iaz. Gaizki aparkatutako autoen portzentai altuean, Rondilla kalean, Kutxa bulegoaren parean, %32,12 (iaz, %32), Rondilla kalean ere 1katza taber-

kalea Musika Eskolaren parean %24,39 (iaz, %31), Euskal Herria plazaren parean %35,39 (iaz, %30), zezen-plazaren parean %21,34 (iaz, %32) eta Nafarroa etorbidean %18,29 (iaz, %5,56).

Pasa den urteko datuekin alderatuta gorabeherak antzematen dira, baina ez dira oso esanguratsuak, batez ere aipatutako obren eraginarengatik.

Bidegorriaren erabilera

Gainera, bidegorriaren erabilera ere neurtu da San Frantsisko ibilgailuak. Bi ordu tarte neurtu ziren (07:45etik 09:15era eta 12:00etatik 13:30era), denera 137 bizikleta zenbatu, %50,36 lehenengo ordutegian eta %49,64 bigarrenarean. Iaz,

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943-65 56 95

XANTI URZELAI

Ez nau beldurtzen egunsentian arnas zuridun izotzak nun dirudien bizirik gabe natura zabal hilotzak eguzki eder joan guztiak argia baitu bihotzak eta begien mila ernegai iraganaren oroitzak

Ostadar eta Aurtzaka dantza taldeak

BEASAIN
2008ko IRAILAREN 28a

X. urteurrena

JUANITA AMUNDARAIN ETA JUAN MIREN MENDIZABAL



Urruti zaudete eta zaila da guzuegana iristea, hainbeste maite zaituzten batzuentzat a ze nolako gauza tristea

Alegera bakarra daukagu, ametsetan sinistea. Zuek ikusteko noiznahi aski dugu, gure begiak itxia

Maite eta behar zaituztegu, beti
Garazi, Javi, June eta Aratz, Itxaro,
Alberto eta Aiora, Elorri eta Unai

ORDIZIA
2008ko
IRAILAREN 29a

XANTI URZELAI IMAZ

Atzo hil zen, 56 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Emaztea: Goreti Hernandez; Seme-alabak: Igor eta Saioa; ezkon-ama: Carmen Garcia; anai-arrebak: Sagrario eta Florencio Perez, Jon (+), Imanol eta Maixa Dorronsoro; ezkon anai-arrebak: J.J. Unanua eta Montse; osaba-izebak: ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Familiak otoitz bat eskatzen dizue haren animaren alde eta BIHAR ASTELEHENAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, Andre Mari Zeruetaurren parrokian elizan egingo den hileta elizkizunera etortzeko erregua egiten dizue. Eskerrik asko guztiok aldeaz aurretik.



HELBIDEA: Karreraurren kalea 6, 2.esk. (Beasain)
OHARRA: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da BIHAR igandea, 13:30 arte

BEASAIN
2008ko
IRAILAREN 28a

Maria Jesus Olanok irabazi du VIII. Hitza Argazki Lehiaketa

Hitza Argazki Lehiaketa »

Leaburuko Elixabete Eizagirre izan da bigarrena, eta Alegiako Ibon Azpilikueta hirugarrena.

ERREDAKZIOA

Badugu aurtengo udako oporraldiko argazkirik ederrena. Asko izan dira VIII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartu dutenak, eta zuten kalitatearengatik askok merezi zuten lehenengo postuan amaitzea, baina TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN harpidedunen eskutik jaso ditugun bozkek batu ostean, Maria Jesus Olanok tolosarraren argazkia izan da aurtengo garailea.

Moanbiken atera zuen argazkia irabazleak, eta horri esker, Amotoko Altuena landetxean bi lagunentzako bi gauko egonaldiaz gozatu ahalko du. Hauxe kontatu zigun argazkiaren inguruan: «Moanbiken, ilha de ibo-n, Tanzania-tik gertu dauden irletako batean atera nuen argazkia. Bertako



Maria Jesus Olanok Moanbiken ateratako argazkia. Bertako emakumeek arpegia zuriztatzeako ohitura dutela dio.

» IRABAZLEAK

1. Maria Jesus Olanok (Tolosa).
2. Elixabete Eizagirre (Leaburu).
3. Ibon Azpilikueta (Alegia).

Bozka eman dutenen artean saritua

- Regina Tolosa (Amezketeta).

emakume gazteek, behin adin batera iritsita, arpegia zuriztatzeako ohitura dute, mushiro-arekin, bikotea aurkitzeko edertasuna erakutsi asmoz».

Bozken %20,6arekin irabazi du Maria Jesus Olanok. Bigarrena, berriz, Elixabete Eizagirre leaburuarra izan da, bozken %17,6arekin. Donostian atera zuen argazkia saharar haurrak ikusten dira itsasoari begira. Eizagirrek Tolosako Beti Alai jatetxean bazkari edo afaria eskuratu du. Hirugarren postuan, bestalde, Ibon Azpilikueta alegiarrak geratu da, Norvegian atera zuen argazkiarekin. Bozken %14,7 jaso du, eta ondorioz, Ibarako Azoka dendak eskaintako saskia egokitu zaio.

Bestalde, bozka eman duten harpidedunen artean zozketa egin du HITZAK euren parte-hartzea eskertu asmoz, eta Regina Tolosa amezketarra izan da zorteduna. HITZAREN materiala jasoko du sari gisa.



Elixabete Eizagirrek ateratako argazkian, haur sahararrak itsasoari begira ari dira Donostian.



Ibon Azpilikuetak Norvegiako Nordkapp lurmuturrean atera zuen argazkia.

Kilometroak 2008

Irura

Lagundu erakitzen, lagundu jaiegun paregabea erakitzen, lagundu Irurako kastola berrira erakitzen, lagundu herria suskaraz erakitzen.

urriaren Sean Irurari gaituztu zure zain...-A, ez ahaztu, hobe tenes eztertzen bazara!!!

www.kilometroak.net

Iragarki laburrak

LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera bat behar dugu. Igandean jai. 650 04 3139.

SALGAI

■ **Intza.** Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin. Bertako eran sendotuz eraberritu eta es-

treinatzeoko. Modu onean salgai, ezinduentzako egokitua. Landetxea jartzeko aukera. 628 03 07 27 / 646 1114 85 / 609 2183 41 / 948 61 06 39.

ALOKAIRUAN

■ **Tolosa.** 34-m²ko lokala. Tolosako Iparragirre auzoan. Argitsua eta egoera onean. 645 71 07 89.

Joxean

- iturgintza
- berokuntza
- aire egokitua
- gasa
- inst. industrialak

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar gutxiei!

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.:656416808



Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldinizak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jaritzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**



Amezketan mendi martxa egin zuten Gudari Egunaren baitan. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko ezker abertzaleak azken hilabeteetako gertaeren inguruko hausnarketa egiteko baliatu zuten atzoko eguna eta egoera «gordinenetakoa» dela esan zuten.

Gudari Eguna, ekitaldiz betea

ERREDAKZIOA

Atzoko Gudari Eguna zela eta ekitaldi ugari egin ziren eskualdean. Besteak beste, Amezketan mendi martxa egin zuten goizean, non 50 bat lagun bildu ziren. Larraitzen, gainera, geldialdia egin zuten, Esteban Nietoren oroigarriaren alboan, hain justu, eta bertan egin zioten omenaldia tolosarrari. Mendi martxarekin jarraituz «eskualdeko hildako 16 gudariei omenaldia» ere egin zioten aurrerago, txalapartariak eta dantzariak ere izan zirelarik. Leku honetan, gainera, Tolosaldeko eta Leitzaldeko ezker abertzaleak Gudari Eguneko irakurketa egin zuten. Horiek horrela, «borroka garaiak» direla esan zuten: «Konpromezu eta iniziatiba berriak hartzeko garaiak dira. Erasoen gainetik, bideari ilusioz heltzeko uneak dira oraingoak. Perspektibarekin jokatzekoak, baina berriak sortzera goazenaren sinimenarekin». Izan ere, aurtengo Gudari Eguna «azken hamarkadetan ezagutu dugun egoera gordinetakoan datorrigu», esan zuten.

Azken hilabeteetako «gazteen kontrako hamaika sarekada, tortura salaketa ezberdinak, eremu instituzionalek ezker abertzalea botatzeko egindako saiakerak... herri honetako sektore konprometituenekin bukatzeko egindako apustuaren adierazle argiak» direla ere esan zuten. «Gatazkaren izara politikoa inoiz baino argiago ageri da eszenatoki politikoan; gatazka ez da estatuek erakunde batekin, ezker abertzalearen edo erkidego autonomiko batekin duen afera, herri oso baten autodeterminazio eskubidea ez onartzearekin duen arazoa baizik», agertu zuten. Ezker abertzalearentzat

«subjeto horren osaketa zazpi lurraldeez osatutako» Euskal Herria dela azpimarratu zuten. Ezker abertzaleak PSOErekin garatutako prozesu negoziatzailea ere ekarri zuten gogora, baina «prozesuaren garapenarekin PSOEren asmoak konstituzioaren kaiolan, ezker abertzalea iruzur berri batean irenstea baino ez zuten bilatu».

«Hausduratik hona»

«Negoziazio prozesuaren hausduratik hona» PSOEek «errepresioaren errejeta zaharrari» heldu diola ere esan zuten eta «proiektu independentistarekin bukatzeko bide horretan bidelagun zintzoak aurkitu dituzte sektore erregionalistetan», esan zuten EA.Jri eta Nabairi erreferentzia eginez.

Hauguztiadela eta, «ezker abertzaleak independentzia eta sozialismoa bidean aurrera egiteko bere determinazio osoa erakutsi behar du» eta estrategia horrek «borroka» duela oinarri, esan zuten. «Jakitun garelako estatuek inoiz ez digutela euren borondate onez ezer oparitu. Are gehiago, jakin badakigulako soilik estatuek eta euren morroi erregionalistak presionatuz eta euren eraginez lortuko dugula egoera aldatzea», gaineratu zuten.

Behin irakurketa eginda mendi martxa Amezketaraino jarraitu zuten eta bertan herriko Joxe Etxeberria Sagastume Beltza-ri lore eskaintza egin zioten antolatutako bazkariaren aurretik.

Arratsaldeko zortzietan, gainera, manifestazioak egin ziren Tolosan eta Leitzan. Tolosaren kasuan, Berdura plazan egin zuten lehen-dabizi ekitaldi politikoa, eta ondoren, Alde Zaharreko kaleetatik manifestazioa.



Haurrak barne mundua marrartzuz

BIDEGOIAN • Guraso elkarteak marrazki lehiaketa antolatu zuen atzo Bidaniako Kultur Astearen barruan. Hauek izan ziren irabazleak: bost urte bitartekoetan Aitor Losa eta lune Zugasti, 1. eta 2. mailetan Oier La-

kuntza eta Urko Lopez, 3. eta 4. mailetan Nerea Ruiz eta Janire Losa, 5. eta 6. mailetan Jorge Aranburu eta Asier Azkolain eta 13 urtetik gorakoetan Bakarne Aranburu eta Aritz Aramendi. ASERIMAZ



Txikienek Pilota Festa izan zuten

AMASA • Herriko frontoian gazteenak ziren nagusi atzo goizean. Pilota Festa antolatu zuten Behar-Zana Pilota Eskolak eta Oberena Kirol elkarteak eta bertan ziren prebenjamin, benjamin eta alebin mailako gaz-

tetxoak erruz ari ziren entrenatzen partiduak hasi baino lehen. 09:30ean hasi ziren biltzen eta ondoren hogeitau partidu jokatu zituzten. Bestalde, 21:15ean Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten. REBEKA CALVO



Toka Txapelketa helduenentzako

IBARRA • Ibarako Erretiratu eta Pentsiodunen Bizi-Nahi elkartearen jaiak gaur amaituko dira 19:30ean egingo duten txupinazoarekin. Atzokoan, hala ere, izan zuten zeregina; goizean bikote mistoek osaturiko

Toka Txapelketa izan zuten eta ondoren piparren eta tometeen dastatzea izan zuten. Arratsaldean, gainera, haur jaialdia egin zuten eta txokolata eta opariak banatu zituzten bertaraturakoen artean. REBEKA CALVO



Herritarrak suziria jaurtitzeko zain egon ziren gogotsu Aldaban. Iruran, gaztetxoek ederki igaro zuten, haur parkean, eta Kanpanolue kale-antzerkiarekin. A.I.

Irurako herensugearen azken sugarrek piztu dute Aldaban suziria

Jaiak » Udara hasi eta udazkenean amaitu dituzte Iruran Jaiak, Aldaban atzo hasi zituzten eurenak eta bihar amaituko dituzte.

ASIER IMAZ

Iruran bi asteburu luze irauan duten San Miguel jaiak amaitzear aurkitzen dira. Udaran hasi ziren eta udazkenean amaitu nahi izan

dituzte herriko jaiak. Aldaban berri hiru egun iraungo duten Jaiak atzo hasi ziren.

Aldaban atzo, gaur eta bihar

Intxur elkarteak hiru egunetako egitaraua antolatu zuen Aldabako jaietarako. Txupinazoa atzo bota zuten, herria dantzan jarritz. Zahagi ardoa lagun zutela mahaian eseri ziren ondoren, Hernaniko bertso eskolako bertsoari babesean.

Aldabako Jaien lehen egunarekin amaitzeko, Ansoerregi, Larrañaga eta Lutxurdio aritu ziren trikitixa doinuak zabaltzen.

Gaur eta bihar hamaika ekitaldi ikusteko aukera egongo da Aldaban.

Herensugearen sugarrak

Iruran bihar amaituko dira San Miguel jaiak, nahiz eta urriaren 12an jubilatuta eta pentsiodunen eguna ospatuko duten.

Atzokoan haur parkea eduki zuten txikieneztat 11:00etatik 16:00etara Garbilekuko plazan. Arratsaldean kale-antzerkiaren ostean izen handiko lau bertsolari igo ziren oholtzara: Maialen Lujanbio, Xabier Paia, Sustrai Colina eta Jexux Mari Irazu. Gai jartzaille bezala berriz, Unai Elizasu aritu zen. Egunarekin amaitzeko Oinkari dantza taldeak emanaldia eskaini zuen Triki Take taldearen emanaldiaren aurretik.

» EGITARAUAK

ALDABA

Irailak 28, gaur

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. I. Aldabako Txirindulari igoera herrikoia. Izen-ematea Kantilean, 11:30ean izango da.
- 18:00. Ikaztegiak dantzariak.
- 19:00. Ume jolasak.
- Jarraian. Erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin.

Irailak 29, bihar

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Hamaiketako herritarrentzat.
- 18:00. Lur Korta ipuin kontalaria izango da.
- Jarraian. Txokolatada.
- 20:30. Herri afaria Lizarraga eta

Larrañagaren trikiti doinuez goxaturik.

IRURA

Irailak 28, gaur (Bikoteen eguna)

- 12:00. Apar-festa San Miguel plazan.
- 14:30. Bikoteen bazkaria Aizpuru jatetxean. Ondoren musika dantzagarria zuzenean Olatz Korta eta Xavier Zubeldiarekin. Oharra: zaintza-zerbitzua egongo da ludotekan 2/9 urteko haurrentzat gurasoak bazkarira joan ahal izateko.
- 17:30. Haurrentzako joku-herrikoia Xiba taldearen eskutik San Miguel plazan.

- 20:00. Itzeder eta Joseba Trikitilariak San Miguel plazan.
- 23:00. Reyes de Mexiko mariachiaren emanaldia plazan.

Irailak 29, bihar (San Miguel Eguna)

- 09:00. Goiz-eresia txistulariekin kaleetan zehar.
- 11:00. Herriko zaindariaren omenezko meza nagusia egingo dute San Miguel elizan. Ondoren dantzari txikiak saioa egongo da. Jarraian hamaiketako herrikoia San Miguel plazan eta Gazte Alaiak Elkarteak.
- 18:00. Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia San Miguel plazan.

- 19:00. Kale-antzerkia San Miguel plazan.
- Jarraian. Rua Mayor taldearen musika eta dantza latinoen ikusizuna egongo da San Miguel plazan.
- 21:30. Erensuega erretzea San Miguel plazan aurtengo jaietako bukaera emateko.

Urriak 12, igandea (Jubilatu eta pentsiodunen eguna)

- 12:00. Meza nagusia.
- 14:30. Jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian. Ondoren jokuetako sariak banatzea eta musika dantzagarria zuzenean Joxe Javier Mendizabalekin.

Zerrenda zabalak eta giro politikak jende ugari erakarri du Tolosara

Azoka » Produktu ezberdinen artean Tolosako babarrunak azpimarratu behar, denboraldiko lehenak.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso animosoa suertatu zen, eguraldia lagun zela gainera. Postuetan jende ugari ikusi genuen, eta mahaian izandako produktu zerrenda benetan polita izan zen.

Berrikuntza bezala, aurtengo lehenengo Tolosako babarrunak aipatu behar ditugu, eta hauekin, babarrun zuria lekatan, edo-ta kalitateko aza ikusi ahal izan genuen beste hainbat produkturen artean.

Fruta zerrenda ere oso zabala izan zen. Hauetan sagarra nagusitu zen. Sagar mota desberdin asko ikusi genituen. Pikuak, gaztainak eta udare bakar batzuk ere azokan zeuden salgai. Datorren asterako aurtengo lehenengo mizpiradiak ikusi ahal izango ditugu.

Perretxiko zerrenda oraindik kanpoko produktuarekin osatzen da. Agian, aste honetan euria botatzen badu, bertako espezieak ikusi ahal izango ditugu datorren aste buruan.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Merk.	Gares.
Klabelina	2,80	4,00
Ziklamena	5,50	-
Azalea	8,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Lobelia	4,50	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

BERTAKO PRODUKTUAK

Urria	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
Errezil sagarra	1,00	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Ibarrako piparra	4,00	7,00
Tomatea	2,00	4,00
Erremolatxa	1,50	2,00
Porrua	1,00	3,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Baratxuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Letxua	1,00	-
Aza	2,50	3,00
Erremolatxa	1,60	-
Kogailoa	1,00	-
Ahuntz gazta (200 gr)	3,00	-
Ogia (800 gr)	2,55	-
Arraultzak	3,50	-
Azukrea	3,35	-
Mermelada	3,00	3,60



20°
14°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 20°
HOTZENA 14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalanztak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jubilatuaren festak

■ **Txarama.** Jubilatuen eguna:
11:20ean autobusa Txaramako
Kartero ondoko geltokitik,
11:25ean Baratzondan, 11:30ean
Papelerako pisu ondoan;
12:00etan meza, 12:45ean herriko
dantzarien emanaldia, 13:30ean
toka txapelketa eta 14:00etan
bazkaria Zazpi Bide elkartearen.
■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatuen elkar-
taren jaien amaiera: 08:00etan
txistularien diana, 11:00etan baz-
karia kiroldegian, ondoren opari-
en zozketa eta 19:30ean jaien amaie-
ra txupinazoarekin.

Kirola

■ **Bedaio.** Zaldi Raid lasterketa.
Heziketakoa. 20 kilometrokoa da
eta 10:00etan hasiko da. 30 bat
zaldun izango dira.
■ **Tolosa.** Aimar Irigoien eta Izeta
II. harrijasotzaileen arteko apustua
zezen-plazan.
■ **Villabona.** Errebote Plazan Enri-
ke Abril Txapelketako errebote
partida bat jokatu da Behar-
Zana eta Zubieta 2 taldeen artean.

Kultur ekitaldiak

■ **Bidegoain.** Goiazko plazan, goi-
zean zehar erakusketa, azoka eta
sagardo eta txakolin dastaketa,
sardina-jatearekin batera. Herriko
antzinako baserrietako barne
noren erakusketa izango da.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Sukru Karakusen era-
rasketa Aranburu jauregian.
■ **Tolosa.** Jose Luis Urdapilletaren
argazki erakusketa Aranburun.

Zinema

■ **Tolosa. Gaur:** 17:00etan *Ahate-
txo itsusia*, eta 19:30ean eta
22:00etan *Che el argentino*.
Bihar (ikuslearen eguna):
20:30ean *Che el argentino*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-
ko Arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95.
112.
Bihar
■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin
Jose Iraola, M. 943 67 24 38.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia,
5. 112.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunik.



BELATEKO BASOKO PERTSONAIK GUREAN

TOLOSA ● Gero Axular dantza talde-
ak *Lilien basoa* izeneko antzerkia es-
kaini zuen doan atzo Leidor areto-
an. Aspanovas elkartek, Minbizi-
dun haurren gurasoen elkarteak,
hain zuzen, antolatutako emanal-
dia eta bertaratutako ume guztiak
txoratzen ziren eszenatokian ikusi
ahal zituzten Belateko basoko per-
tsoaia guztiak.

Bertaratukoek, hortaz, Belateko
basoko istorioen berri izan zuten
Leidorren, pelutzeako Argitxo beso

artean zeukan neskato batek loak
hartuta amestu zituen kondairen
bidez. Ametsetan basoko lamiakin,
erraldoekin eta izaki desberdine-
kin egin zuen topo neskatoak.
Ametsetatik bueltatzerakoan, hala
ere, ez zuen pelutzeako Argitxo to-
patu eskuartearen, baina haren or-
dez basoan aurkitutako adarbaka-
raren adarra aurkitu zuen.
Aspanovasek merienda eskaini
zuen umeei saioa eta gero eta elkar-
tearen materiala ere saldu zuen.

A Agurrak



Urte askoan!

Ana Eizagirre Lasa (Tolosa).
Gaur urteak. Zorionak eta muxuak,
Nerea eta familia guztiaren partetik.

agurrak
urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

